

Izena emateko epea irekita Zinema Gaur programaren bigarren edizioko ikastaro eta lantegietarako

Lehen edizioan lortutako arrakasta ikusirik, 2017an berriro egingo da ohikoaz bestelako zinemari buruzko programa, udaberrian eta udazkenean egingo diren bi ziklotara zabaldua

Lehen edizioan lortutako arrakasta ikusirik, 2017an berriro egingo da “Zinema Gaur” ohikoaz bestelako zinemari buruzko programa, formatu zabalagoarekin eta berrikuntza ugarirekin. Filmen proiektzioen, performance-en, lantegien eta ikastaroen bitartez beste zinema horrekiko interesa eta jakin-mina piztu nahi ditu programak.

Lehenengo berrikuntza datei dagokie, azaroan 15 egunez egiten den zinema-zikloa izan beharrean bi ziklotan banatutako programa izango baita, bata udaberrian, maiatzaren 8tik ekainaren 26ra arte egitekoa, eta bestea azaroan.

Berriro ere Garbiñe Ortega arduratu da koordinazioaz, zeinak hiru ardatzetan banatu baitu programa: proiektzioak, ikastaro eta lantegiak, eta ohikoaz bestelako zinemarekin lotutako ekitaldi bereziak.

Ikastaro eta lantegiei dagokienez, gaur bertan irekiko da izena emateko epea; 945 161 830 telefonora deituz edo info.montehermoso@vitoria-gasteiz.org helbidera idatziz egin daiteke. Izen-ematea doakoa da, baina lekuak mugatuta daude.

Bi ikastaro/lantegi emango dira, hainbat egunetan banatuta. Lehena, “Errealitatearen tolesturak, zinema garaikidearen fantasiako joerak” izenburua duen **zinema espazioa** da, Mainer Oleagak gidatutakoa. Zinemazaleak elkartzeko gunea izango da, zinema fantastikoaren etiketaren pean zinema garaikidean joera bat markatzen duten bideetako batzuk aztertzeko. Film horiek fantasiako ezaugarriak eta elementuak erabiltzen dituzte igarobide ezkutuz eta tolesturez beteriko errealitate anitza, konplexua edo antzemanezina deszifratzeko edo bistan uzteko. Ekainaren 7an, 14an eta 21ean egingo da, 19:00etatik 22:00etara.

Bigarren lantegia “Perla finak eta oso xeheak” izeneko **collage lantegia** da, Gloria Vilchesen ardurapean. Helduentzako lantegia da, paper moztu eta itsasgarriarekin eginiko eskuzko collagea praktikatzeko, artista klasiko eta garaikideen obra esanguratsuenen azterketatik abiatuz. Ekainaren 24an eta 25ean eskainiko da, 10:00etatik 14:00etara.

Gainerako berrikuntzak aurrerago aurkeztuko dira, prentsaurrekoan.

Abierto el plazo de inscripción para los cursos y talleres de la segunda edición de Zinema Gaur

El programa de cine no convencional que se celebra en Montehermoso, volverá en 2017 tras el éxito de su primera edición, y se ampliará a un ciclo de primavera y otro en otoño

Tras el éxito de su primera edición, Zinema Gaur, el programa de cine no convencional que pretende, mediante la proyección de películas, realización de performances, talleres y cursos, alimentar el interés y la pasión por este otro cine, vuelve en 2017 con un formato más amplio que tendrá bastantes novedades.

La primera de ellas será su celebración, que pasa de ser un ciclo de cine durante 15 días de noviembre, a ser un programa de dos ciclos, uno en primavera entre los días 8 de mayo a 26 de junio, y otro en noviembre.

Esta edición, contará nuevamente, con la coordinación de Garbiñe Ortega, que ha vuelto a dividir el programa en tres ejes: el del ciclo de proyecciones, y el de cursos y talleres, y el de eventos especiales relacionados con el cine no convencional.

Respecto al segundo de ellos, el de cursos y talleres, desde hoy queda abierta la inscripción, que podrá realizarse a través del teléfono 945 161 830 o en info.montehermoso@vitoria-gasteiz.org. La misma, es gratuita, pero las plazas son limitadas.

Serán dos cursos/talleres expandidos en el tiempo. El primero de ellos, un **Espacio de Cine** llamado “*los pliegues de la realidad, tendencias fantásticas en el cine contemporáneo*” guiado por Maider Oleaga. Será un lugar de encuentro para los amantes del cine que explorará algunos caminos que marcan tendencias en el cine contemporáneo bajo la etiqueta de cine fantástico en diferentes géneros. Películas que usan rasgos y elementos fantásticos para descifrar o desenmascarar una realidad múltiple, compleja, inaprensible, repleta de pliegues, de pasadizos secretos. Se celebrará los días 7, 14 y 21 de junio de 19:00 a 22:00.

En segundo lugar, el **Taller de Collage** “*perlas finas bien molidas*” a cargo de Gloria Vilches. Un taller de adultos dedicado a la práctica del collage manual, con papeles recortados y pegamento a partir del análisis de una serie de obras representativas de artistas clásicos y contemporáneos, que ese celebrará los días 24 y 25 de junio de 10 a 14 horas.

El resto de novedades, se presentarán más adelante en rueda de prensa.